

## BA- ETA EZ- FONETIKAREN ALDETIK

José Luis ALVAREZ EMPARANZA (TXILLARDEGI)

### 1 *Geroari buruz sustrai bilaketan*

Euskal Dialektologiak, besre edozein dialektologiak bezala, badu berez funtsa eta interesa. Euskal Herria inoiz euskaldunduko bada, ordea, hizkuntza eredua finkatu beharra dago. Euskaltzaindiak orain arte egin dituen urratsek, eta Euskara Batuak berak, helburu horretantxe dute azken giltzarria.

Hots, gauza ezaguna denez, lehen «euskal belarria» delakoan konfiantza apur bat bederen jar bazitekeen ere, gaur ez da gauza bera gertatzen; eta, gero eta hertsikiago, ARAUAK eman beharra dago: bai idazkerari dagokionez, bai AHOSKERARI BURUZ ere.

Horretarako, jakina, euskalki GUZTIAK kontutan hartuz, eta soziologi arazoak ahaztu gabe, BIDE BAT proposatu behar da. Behar hau, bestalde, ez da amets akademiko bat. Ez. Eskoletan eta gainerako lanetan ari direnek ozenki eskatzen dute aholkua.

Euskaltzaindiari dagokio erantzutea. Hauxe du gaurko eginbide nagusia; eta ez antzinako nabarduretan azkenik gabe murgiltzea. Nahiz, noski, eman beharrak diren arau horiek SUSTRAITUTA eman behar diren ere.

*Ba-* (baiezkakoa eta baldintzazkoa), *ez-* eta *bait-* aurritzien ahoskera (fonetikaren mailan eta azentuaren mailan, beraz) finkatzea oso beharrezkoa da. Alde betetik, beroiek duten maiztasunarengatik; eta bestetik, puntu honetan euskarak duen berezitasuna galtzeko arrisku larrian gaudelako.

### 2 *Sustraien bilaketa*

Euskalkien artean fonetikaren mailako desberdintasunak ezagunak badira ere, areago dira diferentziak nabarmen azentuaren mailan. Eta, funtsez, «Mendebaldeko euskalkiak» jarri ohi dira multzo batean, eta «Ekialdeko euskalkiak» bestean. Honelaxe egiten zuen Azkuek; eta gauza bera Altubek, Mitxelenak eta bestek. Euskararen baranoan, prosodiaren mailan batez ere, bi mundu baleude bezala.

Txosten honetan laburki ikutuko dugun sailean, ordea, sustrai-bilaketak euskararen BAKUNTASUNA erakusten bide du. Eta bazterretako euskalkietan (zenbait bizkaiera motatan eta erronkarietan bereziki) ere, batera topatzen diren «bitxikeriek», funtsezko batasuna salatzen dute; eta Euskara batuari buruz batasun izpiak ere eskaintzen.

Hemen laburki baizik emango ez dudan azalpen honetan, sail hauetan topatu ditut lekukoak eta frogabideak:

1. N. Holmer eta J. Basterretxea jaunen iker-lanetan oso bereziki; nahiz, agerikoenez, Azkue eta Altube ere kontutan izan.

2. Eskuarlean ditudan transkribaketa fonetikoetan: neronenak batzu, beste zenbait ikertzaile eta biltzailearenak beste batzu.

3. Aspaldidanik neure elkarriketetan ohartu ditudan xehetasun batzu. Ahalean, dena dela, neure kabuz bildutakoak, baliatu gabe utziko ditut.

### 3 *Lau parte*

Goiago ere esan dudanez, lau parte ditu lantxo honek:

- a) *Ba-* baiezkoa.
- b) *Ez-* ezezkoa.
- c) *Ba-* baldintzazkoa.
- d) *Bait-* aurrizkia.

### 4 *Fonemen elkarketaz*

Behin eta berriz esan denez, ESKUARKI [nahiz ez beti, Larramendik berak ere oharrerazten zuenez: «esta mudanza (=bdg/ptk, alegia) no es universal, porque en algunas partes se escribe y se pronuncia sin mudanza alguna», eta abar (Imp. Venc., 338)], aldakuntza hauek gertatzen dira:

ez bada / ezpada;	bait da / baita;
ez da / ezta;	bait gara / baikara;
ez gara/ ezkara;	bait naiz / bainaiz;
ez naiz / enaiz;	bait haiz / baihaiz;
ez haiz / ehaiz;	bait zen / baitzen;
ez zen / etzen;	bait luke / bailuke.
ez luke / eluke.	

ESKUARKI, berriz, horietxek dira aldakuntzak; eta Euskara Batuari buruz ontzat eman daitezkeela dirudi.

Arazo nagusiak hauek izango bide lirateke:

4.1. /h/ fonemarentzat [Ø] (=zero) balio fonetikoa proposatzen baldin bada, zer egin /h/ -ari buruzko elkarketetan? Ez ote da artifizialegi /eha/ (=ea, pratikan), eta abar, proposatzea? Horra hor erabakizun dagoen puntu bat. Uste dut, halere, /enaiz/ eta /ehaiz/ bikoteak, logika apur bat balukeela; eta, analogia lagun, /enaiz/ eta /ezaiz/ bikote desberdina baino egokiago litzatekeela.

4.2. Bizkaieraz eta eronkarieraz batera, denak ematen du aditzera hirugarren pertsonaren aurreko marka, baita aditz laguntzailean ere, zero izan dela:

zan / ezan (eta ez «etzan», afrikatuz alegia)

Normalena, dena dela, afrikakioa izanik:

zebilen / etzebilen

ziren / etziren

eredutzat eman bide daiteke **AFRIKAZIOA**; nahiz puntu honetan aukera hau eginez, bizkaieratik (eta euskara arkaikoenetik ere bai) urrunduko bagara ere.

4.3. Zenbait euskalkitan (eta eronkarieraz eta bizkaieraz ere bai, dirudienez) ez g- horrek *ezg-* eman badezake ere (alderantzizko asimilazio lege anormal baten arauera, eta frikaria ozenduz) badirudi gorketa normalaren arauerako ahoskera hobetsi behar dela:

ez gara = ezkara

ez genekien = ezkenekien.

4.4. Ohar berberak egin daitezke, jakina, *bait-* aurrizkiari buruz, ondoko aldakuntza klasikoak eta orokorrak hobetsiz:

bait haiz = baihaiz [bayajs]

bait zen = baitzen [baicen]

bait genuke = baikenuke [baikenuke]

## 5 Azentuaren arazoa

Neure txosten hau hemen ez luzeegi egiteko, adibide batzu baizik ez dut emango. Ondoko egunotan gaur hemen irakurtzen aspergarri gertatuko litzaitekeen zerrenda piloa ezagutaraziko dut.

5.1. *Ba-* (baiezakakoa) eta *ez-* (ezezcakoa)

5.11. «Hitano» edo alokutiboen erabilpenean somatzen denaren arauera, elkarren kide dira bi aurrizki hauek alderdi askotatik (izan ez dira «aurrizkiak», jakina; baina aditzari buruzko lantxo honetan egoki izan bide daiteke halakotzat hartzea).

Esate baterako:

badakit = *bazekiat, bazekinak;*

edo-ta, *badiakiat, badiakinat, badiakizut.*

ez dakit = *etzekiat, etzekinat;*

edo-ta, *ez diakiat, ez diakinat, ez diakizut.*

Jakina denez, «hitano»zko aldakuntza horiek ez dira «ba-» (baldintzazkoarekin) eta «bait-» ekin gertatzen:

(baldin) *badakit, baitakit:* ez dira hika aldatzen.

Alde honetatik, beraz, eztabaidagarria da Baionan 1964-an hartu zen erabakia (alegia: *ba-* lotuta, *ez-* berezita); geroko biltzareetan Euskaltzaindiak ere onartua:

badakit / ez dakit  
banago / ez nago

Ez bide dago arrazoinik aski «ba-» eta «ez-» horren desberdinki tratatzeko. «Euskal belarria» erabat hondatuta egonik, bestalde, guztiz euskal fonetikaren kontra hartutako erabakia dugu hori.

Bi «ba-» horiek lotuta idazteko arrazoinik baldin bazegoen ere, areago zegoen «ba-» baiezkakoa eta «ez-» BERDIN tratatzeto; alegia, *biak lotuta*. Eta, Axularren eta Azkueren hildotik, dagozkien aldakuntzak markatuz:

badakit / eztaikit  
banuke / enuke  
baliteke / eliteke.

Larramendiz geroztik, bai Azkuek, bai Basterretxeak, bai bestek ere, eta *azentuari* dagokionez, fenomeno *berberak* aurkitu uste izan dituzte «ba-» eta «ez-» -i buruz. (Nahiz ez *gauza bera* aurkitu denek!).

Azkue-ren ustez, esate baterako, bai «badator» bai «eztator» sintagmetan, «tónico» dira bai «ba-» bai «ez-» (baina ez *gauza bera* baldintzazkoetan: (baldin) «badator», azkeneko silaba beherago alegia<sup>1</sup>).

Hots, Basterretxeak argiro eta inork baino ausarkiago azaldu duenez (Ikus «Estudios sobre...»<sup>2</sup>), «por extraño que pueda parecer es el descenso de tono lo que hace que la negación o la afirmación constituya el foco» (Fontes 21, 44-45). Beste hitz batez, «galdegaia» aditz-forma bera eta «ba-» edo «ez-» bera direnean, azentua beti «BA» eta «EZ» horien ESKUBIAN gertatzen da; «ba-» eta «ez-» delakoei azentua SEKULA ez datzekielarik.

Holmer-ek eta Basterretxea-k, hitz batez, xuxen aurkitu dute karkoa; eta lehenengoaren hitzak kopiatuko ditugu, beti ere «Mendebaldeko euskalkiak» gogotan dituztelarik: «Badator, «sí viene», es palabra fonética, en español lleva dos acentos tónicos, pero en vizcaíno uno sólo... del mismo modo es palabra fonética el vasco «ez dator» (eztator), «no viene», al contrario de la correspondiente frase en español, que lleva dos acentos tónicos» (Apuntes Vizcaínos, Urquijo 1968, 108).

Garaia da, beraz, nagusitzen hasia den interferentziaren kontra, hau esateko:

badakit (=ya lo sé, je le sais) = «badakit» = [bađákit]  
«ez dakit» = [estákit]

Hori ez baita «Mendebaldeko» eskualdeetan bakarrik gertatzen.

1. Del acento Tónico vasco en algunos de sus dialectos - Azkue, 1931.
2. Estudios sobre la entonación de Guernica - Fontes.

Bortzerrietan eta Hondarribian, esate baterako, gauza nabarmena da ahoskera bera:

«badu» eta «ez du» = [bađú] [estú]

Eta gauza bera zubereraz:

[bađít] [bađúk]

nahiz zubereraren arauera, eta analogiaz (-2) \*[báđít] eta \*[báđük] espero izan.

Fenomeno bera aurkitzen da erronkieraz, adibide hauen arauera:

S - [bađít]	R - [bađúr]
S - [eštík]	R - [estúr]
S - [basén]	
S - [bađúgü]	R - [bađákir]
S - [bađákísü]	
S - [ecütüsün]	R - [esganakjá]

Hots, ebakera horien arauerako azentu-eredurik ekonomikoena ez da ATZETIK kondatzea, silabak AURRETIK kondatzea baizik; guztiz Baste-retteak proposatu duen bezala.

Aditz jokoak silaba bakar bat baldin badu, (silaba) BIGARRENA dugu euskalki guztietan:

«badu» = [bađú], «ez du» = [estú] ( + 2)

«batator» = [bađátoř], «ez dator» = [estátoř] ( + 2)

Eta hirutakoekin, berriz, ( + 3):

«badakigu/ez dakigu» = [bađákígu] [estakígu]

«Hitano»zko formetan, ezaguna denez, azentua atzera pasatzen da, gaurko zubereraz oso nabarmena denez:

«günia» (= genuen, hika) = [günjá] [bagünjá]

(Horren azalpena ez dugu gaur hemen aipatuko)

Fenomeno batzuk bide beretik bultzatzen gaituzte.

Esate baterako: bai bizkaieraz, bai zubereraz ere (ikus Larrasquet), oso maiz entzun daitezke honelakoak: [bađáit] edo [bađáič] (B); eta «eztáit» (S) («forme prononcée spontanément», Action, 213). Hots, Larrasquet-ek berak bere lanetan frogatu duenez, /k/ ren ozenketa hori (edo-ta ezabakera hori azken buruan) ezin daiteke uler azentu-ONDOKO ez izatekotan. Ahoskera arrunt eta oso orokor horrek, [estáit], [estákit] eskatzen du, baina ez inola ere \*[estakít].

Altsatsuan ere, forma bera bildua zuen Kandido Izagirrek:

«eztáit nor dán úra» (Urq., 1967, 51)

Lekuko bikaina Elkano-ko Lizarraga (Hegoaldeko nafarreraz ari, eta azentuak markaturik). Hots, Lizarragak inoiz ez ditu «ba-» eta «ez-» azentuatzen, eskuin aldean baizik:

*eztút, eztá; badáqui, badíre, bazúte, estúzie, eztítu;*

Hiru silabatakoetan, baita bitakoetan baina *-n*, *-ke* edo *-la* atzizkiez doazenean, +3 silaban markatzen ditu:

*eztacárra, ezdezáque, badiréla,*

Koldo Artolak erronkarieraz ere aurkitu duen bide beretik:

*eztúr | ezdurála*

5.12. *Obar bat*: galderari datzekion entonazio goranzkoaren eraginez, euskalki guztietan dirudienez (eta baita Ekialdekoetan ere), azentua atzera pasatzen da kasu horietan:

orrek *bazakiená* atzo kóri?

Gutziz Mendebaldeko euskalkien arauera: «el acento enfático-interrogativo se caracteriza por la acentuación en la última», (Holmer, Apuntes vizcaínos, 116).

5.2. Baldintzazko *ba-*, berriz, AZENTUAREKIN agertzen bide da maiz euskalki guztietan.

Holmer-ek bereziki aipatua du fenomenua, baita haren transkribaketa fonetikoetan adierazi:

*bágues*, «si vamos», Ap. 138

Eta oharra zuzena da: aski da bizkaitarrekin hitz egitea: baldintzazko «ba-» horrek *azentua darama* bizkaieraz; kostaldean bederen oso markatua (eta oso, beraz, erdararen interferentziaz espero dezakegun joeraren kontra, berriz ere!). Azkuek ere horrelako zerbait adierazi nahi bide zuen, baldintzazkoetan azkeneko silaba «erori» egiten dela esanez. Ikus honi buruz Basterretxea-ren ohar argitsua (Fontes 21, 30).

Hots, gauza bera idarokitzen dute Ekialdeko euskalkiek. Hona hemen adibide bakar batzu:

*éltan bánaz* (R, K. Artola) (Baina *il balite* ere bai)

*balinbáda* (S, guztiz normala); *beltüübáda* (S)

*nahi bádük* (S, ikus Núñez, Urq. 1976, 186)

*naibáute expáute* (AN, Lizarraga, Doctr. 38)

*ilbáliz idibát* (AN, Lizarraga, D., 12)

*ojalá bániz digno* (Fontes 29, 354; AN, Lizarraga)

*ajustacembáliz becála* (AN, Lizarraga, Fontes 29, 356)

*expáce jaió Judas* (AN, Liz., 88)

(Nahiz Lizarragaren luman azentua zenbait aldiz azkeneko silabara ere batzutan joan: *barimbadú*, eta antzera)

Badirudi, hitz batez, «ba-» hau beste modu batera idatz litekeela: *berezita*, agian, edo gidoi txiki batekin. Ez da garbi ageri, dena dela, bi «ba-» horiek berdin idazteko erabakia.

Ezezko baldintzetan «*ezpá*» genuke, dena dela.

5.3. «Bait-» *delakoari* dagokionez, berriz, KLITIKO agertzen denez geroz, LOTUTA idatzi behar litzarekeela dirudi; oraingoz Euskaltzaindiak atxekitzen duen bitasuna moztuz:

«baita» (eta «bait da» gaitzetsi)

«bailuke» (eta «bait luke» gaitzetsi)

Eta abar. Hau, berriro ere, euskal fonetikaren kontra idazkeran ez joateko (edo, hobeki esateko, AHALEAN BEDEREN kontra ez joateko).

Aurrizki hau batez ere Ekialdeko euskalkietan erabiltzen delarik, haue-tan dugu haren klitiko-tasun horren froga:

*beitá* (S)

*beitzén* (S)

Edo Larrasquet-enean:

*beikía, beikütük, beikinén, beikütie, beiküntién* (Action, 199, 200)

Erronkarierez dauden etsenpluek ez dute beti argirik ematen.

Elkano-ko Lizarragak aldiz sekula ez du *báit-* idazten: *baitágo, baili-záque, baitúte, baitagóque, expaitúte*, e.a.

«Bait-» en klitikotasun horren arauera erabaki behar litzateke, beraz, arazo hau; LOTUTA idatziz, eta «ba-» eta «ez-» aurrizkien arauerako *azentu-erregela BERBERAK* honi buruz erabakiz.

5.4. Honen alde mintzo dira, azkenik, bai Leizarraga zaharra, bai oraingo zuberera. Alegia: bigarren pertsonari dagokion /h/ ez da beti azaltzen. Hain zuzen ere: «ez», «bait» eta «ba» -ren ondoren agertzen da. Hona hemen, adibidez, Hélène de Constantinople pastoraletik hartutako adibide bakar batzu:

*arauz ordi iz*

*nitzaz iz trüfatzen*

*eztün ... libratüren aianik*

*nahi iza jin eneki?*

Baina baita beste hauek ere:

*ezariren behait presontegian*

*espehiz jalkhiren hanti*

*zeren ehian conseillatü?*

Badirudi, hitz batez, aditz laguntzaile horiek *klitiko* izanik, aurrizki horien *ondorioz* azentua *hartzen* dutela:

*beháit, expehíz, ehían*

Eta hobeki ulertzen bide da Leizarragaren esaera famatu hura:

*hi aiz Christ*

azentuduna «hí» balitz bezala (edo izan balitz bezalá, bederen)

Edo-ta Etxahunen esaldi hori:

*ene izterbegia: bahin emaztia*

(alegia, bahín; eta ez \* báhin).

**Bukatzeko:**

Badirudi euskalki guztietan izan direla klitiko «ba-» (baiezakoa), «ez-» eta «bait-»; eta, hortaz, *hirurak LOTUTA* eta ondoko letrari dagozkion aldakuntzen arauera idaztea litzatekeela egokiena.

Aldiz, *baldintzazko «ba-» BEREZITA* hobe litzatekeela dirudi, nahiz agian loturazko ziritxo batekin edo.

Eta azken eskabide bat: *Sebero Altube*-ren iritzia neure eginez, eta euskal azentuaren sena erabat galduta ikusita, *azentu ortografikoaren behar gorria* azpimarratu nahi nuke gaur. Arazo zaila, jakina, labaina; aldez aurretik azentu horren araubideak erabaki behar baitira. Baina *behar gorria*. Azentu ortografikoaren alde Altubek eman zituen arrazoinak neure eginez, nik neuk ere proposamen bera egin nahi dut hemen.

Aldez aurretik, berriz diot, azentua non den jakin behar da. Eta hala da. Baina arazo hau argitzen ez badakigu, alferrik ari gara aspaldiko kontuak argitzen eta hausnartzen. Euskaltzaindiak GAURKO ETA BIHARKO beharrei erantzun behar baitie aurrenik.

**SUMMARY**

It seems to me clear that the fundamental mission of the Basque Academy should be to establish progressively, but firmly the PHONOLOGICAL, and even, PHONETICAL rules, of the Unified and Official Basque.

Now then, it seems that as regards the particles «ba-» (both affirmative and conditional), «ez-» (negative sentences), and «bait-» (concessive clauses), it is possible right now to establish some criteria which appear all through the different Basque dialects.

In the first place, by the way, we could determine the pronunciation of the groups with «ez-» and «bait-», considering the voicelessness, the affrication, etc., repeatedly pointed out.

But it could also be established the ACCENTUAL model of the groups resulting from those particles.

The analysis of the various dialects suggests, in fact, that, corroborating N. Holmer and Basterretxea's opinions, the accent is placed everywhere on the RIGHT of the particle (of «ba-» as affirmative, of «ez-» and of «bait-»); and that, on the contrary, «ba-» as conditional receives the accent on itself. And this, evidently, is radically opposed to the schemes of the Spanish and French languages.

In this work we give several examples in order to explain it; but we promise a detailed analysis of the subject in the coming months.

**RESUMEN**

Me parece claro que la misión fundamental de la Academia Vasca debería ser hoy la fijación progresiva, pero firme, de las NORMAS FONOLÓGICAS, e incluso FONÉTICAS, del Vasco Unificado y Oficial.

Ahora bien, parece que en lo referente a las partículas «ba-» (tanto afirmativa como condicional), «ez-» (negaciones), y «bait-» (en las concesivas), es posible desde



ahora la fijación de varios criterios que se presentan como generales a través de los diferentes dialectos vascos.

En primer lugar, y dicho sea de paso, cabría decidir la pronunciación de los grupos con «ez-» y «bait-»; según el ensordecimiento, la africación, etc. ya señalados repetidas veces.

Pero cabría, también, fijar el modelo ACENTUAL de los grupos que se constituyen con dichas partículas.

El análisis de los diferentes dialectos sugiere, efectivamente, que, confirmando las opiniones de N. Holmer y Basterretxea, el acento se produce por todas partes a la DERECHA de la partícula (de «ba-» afirmativo, de «ez-» y de «bait-»); y que, por el contrario, el «ba-» condicional lleva el acento sobre sí mismo. Y esto, evidentemente, en oposición radical con los esquemas del español y del francés.

El artículo da varios ejemplos a título de ilustración; pero promete un análisis pormenorizado del asunto en los próximos meses.

## RÉSUMÉ

Il me paraît clair que la mission essentielle de l'Académie Basque devrait être aujourd'hui la fixation progressive, mais ferme, des NORMES PHONOLOGIQUES, et même PHONETIQUES, du Basque Unifié et Officiel.

Or il semble que, en ce qui concerne les particules «ba-» (affirmative et conditionnelle), «ez-» (négation) et «bait-» (concessive), il est possible dès maintenant de fixer quelques critères qui s'avèrent très généraux à travers les divers dialectes basques.

Tout d'abord, et soit dit en passant, on pourrait décider la prononciation des groupes avec «ez-» et «bait-»; suivant ensourdissement, affrication, etc. déjà signalés maintes fois.

Mais on pourrait également fixer le modèle ACCENTUEL des groupes avec ces particules là.

L'analyse des différents dialectes suggère, en effet, que, confirmant les vues de N. Holmer et Basterretxea, l'accent se produit partout A DROITE de la particule («ba-» affirm., «ez-» et «bait-»); et que, par contre, le «ba-» conditionnel porte lui l'accent. Ceci, évidemment, en opposition radicale avec les schémas du français et de l'espagnol.

L'article donne quelques exemples comme illustration; mais promet une analyse approfondie dans les mois qui viennent.